

DIRU ITURRIAK:

Makinak erosteko, hasieran jarritako kapitala erabiliko dugu. Bazkide bakoitzak 3.000€ jarriko ditu, eta modu horretan gure kapitala 12.000€koa izango da.

Gure proiektua aurrera eraman ahal izateko, gastu jakin batzuk izango ditugu. Lehenik eta behin makinak erosi, eta hauek betetzeko produktu ekologikoak eta haien bilgarriak beharko ditugu. Bi makinak 2.000€ko gastua dute, eta produktuak urtaroaren arabera izango dira. Honen arazoetako bat produktuen prezioa da; produktu ekologikoak, ez ekologikoak baino garestiagoak dira. Janaria bertakoa denez, astero berriztuko da. Garraiorako berriz, bizikleta eta izango duen karroa erosiko dugu, honek 300€ kenduko dizkigu.

Enpresaren batek mentzionatua izatea nahi badu, diru truke egingo diogu publizitatea; kontuan hartuko ditugu hainbat irizpide: ze ondasun mota sortzen duen, ingurumena kaltetzen duen (produktuaren garapenean eta produktu finala kaltegarria den), gure printzipioen kontra egiten badu ez zaio publizitatea egingo.

Gure makinaren kokapena hezkuntzaren arloarekin lotura izango dutenez, publizitatea baita horrekin lotutakoa izango da, adibidez: elkar argialetxearen berriak, bertako liburu-dendak etab.